

ZAM

ZORROTZ MORROTZ

39. ZENBA 2016ko MAIATZA

HIJOS DE TU IGLESIA
MUSIKA TALDEA

ZURI GORRI ZORROTZA TALDEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

**5 FORMULA:
+ NOMINA
+ AUTO ASEGURUA**

**AUTORAKO MAILEGUA
% 5eko ITNrekin
(%5,77ko UTB)***

(NOMINA EDO PENTSIDA HELBIDERATUTA DAUKATEN BEZERDENTZAKO
ESKAINITZA BEREZIA, AUTORAKO MAILEGUA KUTXABANK AUTO
ASEGURUAREKIN BATERA ESKATZEN BADUTE).



**KUTXABANK
PRODUKTUEN BESTE
KONBINAZIO BATZUEKIN
ERE ESKA DEZAKEZU
5 FORMULA, INFORMATU
ZURE BULEGOAN EDO
WWW.KUTXABANK.ES
WEBGUNEAN.**

*Gutxienez 10.000 euroko zenbatekoa eta 60 hilabeteke epea dituen mailegu baterako kalkulaturia. Hobaritutako ITN: % 5,00 (UTB: % 5,77). Irteleiz-komisioa: % 1,50. Zor den zenbatekoa, gutzira: 11.472,74 €. Azken kuota: 188,85 €. Gainerako hileko kuotak: 188,71 €. Eskaintza hau baliatzeko, Auto Kutxabank aseguru kontratatuta eduki behar da, eta honako baldintza hauetakoren bat ere bete behar da: nomina edo pentsida helbideratuta edukitzea; Kutxabank txartelarekin saltokietan urtean 1.200 euro edo gehiago kontsumitzea; Kutxabank Kredit aseguru babestua kontratatzea eta urteko mantentzea. Auto Kutxabank aseguru Liberty Seguros (Compañía de Seguros y Reaseguros, SA) etxearen produktua da. Kutxabank Kredit Aseguru Babestua Kutxabank Vida y Pensiones SAlren aseguru da. Auto aseguru eta Kutxabank Kredit Aseguru Babestua Kutxabank SAlren bitartekaritzaekin bidez kontratatuko dira. Kutxabank Vida y Pensiones sozietatearen banka-aseguruetarako operadore bakarra Kutxabank da, eta haren baimena du Kutxabank Aseguradora sozietatearekin eragielak egiteko. Artekariaren Administrazio Erregistro berezian dago izena emanda, C0654A95653077 zenbakipean. Aurretiaz ordaintzeagatik koepsazioa, baldin eta amortizazioaren data eta maileguaren epemugaren artean urtebeteko baino gehiagoko tartea badago; Ordaindutako maileguaren zenbatekoaren % 1. Urtebetekoa edo txikiagoa bada: % 0,5. Ez da inoliz izango zenbateko horrek epemugara arte sortuko lituzkeen interesak baino handiagoa. Iraungitako zordun-posizioen erreklamazioagatik komisioa: 30 €. Erakunde ikuskatzailea: Espainiako Bankua. Eskaintza 2016/05/31 arte egongo da indarrean, bulegoetan egiten diren kontratazioetarako. Zenbatekoak eta epeak bestelakoak izanez gero, galdetu baldintzak, bulegoan. Erakunde mailegu-emeleak azterketa egin eta onartu egin beharko du lehendabizi. Eskaintza hau ezin da beste eskaintza batzuekin metatu. Erakunde mailegu-emeleak: Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, 48009 Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan erregistratuta: S226 liburukia, 0. liburua, BI-58729 orria, 1. inskripzioa.

Datozen hilabeteetan Zorrotzan...



...MAIATZEAN...

Eguna zehazteke
ADI KARTELARI!!!



**ZORROTZAN ZEHARREKO
BISITA GIDATUA,
OLABEGARAINO**

**...EKAINEAN...
ADI KARTELARI!**

**Uncontable antzerkia
eta 75. urte bileraren
joko lanaketa**

**Xitipardi antzerkia
"Ezetz Konta!"**



**[Bainak 75. 17:30ean
Azoka plazan**

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:



3. adinarentzako egoitza, frontoia eta alboko lokalak eta hainbat bilera

Auzoarentzat garrantzitsu diren bi gairen aipamena egin nahi dizuegu zenbaki honetan:

Alde batetik, 3. adinarentzako egoitzaren lanak bukatze-fasean daudela eta uda honetarako zabalik egongo dela.

Bestetik, badago Udalaren partetik frontoia estaltzearen eta alboko lokalen birgaitzearen konpromisoa.

Halaber, Auzo Elkarteak, Zorrotzako Herri Mugimenduari batera lanean jarraitzen du gogotsu, eta hainbat bilera aurreikusita daude zenbait udal sailekin. Biler horietan, auzoarentzat esparru guztietan garrantzitsuak diren hainbat gai jorratuko dira.

Martxan dauden zeregin guztiak bide onera heltzea espero dezagun, Zorrotza gero eta atsegina goa izan dadin guztiontzat eta gure bizi-kalitatea hobea dadin.



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoa bat **zmorrotz@gmail.com**

helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

ZM

ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria
39. zenbakia. 2016ko maiatza

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo
Tfnoa: **94 441 49 20**
622 61 90 20

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

Koordinazioa:

Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:

amc diseinua

Erredakzioa:

Ibai Barrios
Ainara García
Igor Gutiérrez
Haizea Olleta
Aitor Marín
Naroa Peña
Iratze Pérez
Lorna Yáñez

Zuzenketak:

Iñigo

Laguntzaileak:

Karlos Rodríguez
Manu Cobo
Santurtziko Irakurzaile Kluba

Inprimaketa:

Arin Graf



zeurea da fitza
euskara
no te lo pierdas.



”la Caixa”

Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5
48013 Zorrotza (Bilbo)
Tel. 94 459 00 90

www.lacaixa.es

Lokalen osoko eraberritzea frontoiaren estalkiarekin batera egingo da, Koordinakundearen proposamena oinarri hartuta

Taldeen Koordinakundeak jakinarazi duenez, Obra eta Zerbitzu Sailak frontoiko lokal kulturalak eraberritzea onartu du, eta frontoiaren estalkia eraikitzeko proiektuaren barruan sartu. Hori ez ezik, elkarteek aurkezturiko erreforma proposamenean oinarrituko direla ere agindu diete udaletik.



Igor Gutiérrez

Hasiera batean, aipatu sailak 8. Barrutiko Auzokide Planetik kopuru bat gorde zuen bai estalkia bai lokalen hobekuntza jasotzen zituen proiekturako. Hala ere, auzoko taldeek lokalen erabateko eraberritzea proposatu zuten, sailak aurkeztutako planak beraien beharrianak asetzen ez zituela ulertuta. Baina Koordinakundearen egitasmoak proiektuaren hasierako aurrekontua gainditzen zuenez, hura gehitzea eskatu zuten. Azkenean, Auzokide Planaren bidez gahiago lor ezin zitekeenez, sailak kutxa orokorrera jotzea erabaki du.

Lizitazio-prozesua datozen asteotan irekiko omen dute, uda eta gero bukatzeko. Lanak azaroan hasi eta sei hilabetez luzatzea espero da. Auzoko kultur eragileek zirrara handiz hartu dute berria, izan ere, frontoiko lokalak ezinbestekoak dira hainbat talderen eguneroko jarduerarako, hala nola, Jai Batzordea, Azahara, Ibai-Arte, Txinbatukada, edota musika taldeak.

Def con Dos, El Reno Renardo, Zarpazo a Cicatriz eta Vendetta aritu dira Gaztetxeak antolatutako Zorrotza Zuzenean festibalean

Zorrotz Morrotz

Apirileko asteburuetan zehar, Zorrotzako Gaztetxeak antolatutako Zorrotza Zuzenean festibala burutu zen. Def con Dos, Vendetta, Zarpazo a Cicatriz edota bere diska berria aurkeztera etorri zen El Reno Renardo beza-

lako taldeen kontzertuak hartu zituen egun haietan bere 12. urteurrena ospatzen zuen Gaztetxeak. Ikuskizuna bitartean Jai Batzordeko kideak bokatak egiten eta saltzen egon ziren. Bildutako dirua, Zorrotzako hurrengo jaietan gastatzeko erabiliko da.

Zorrotzak zazpigarren Clown erakusketa jasoko du maiatzean

Bilboko Udaleko Kultura Sailak antolatutako programak Euskal Herriko hiru konpainiaren partaidetza izango du: Itziar Sáenz de Ojer, Trapu Zaharra eta Ékoma Teatro, eta horiez gain Dado clown kanadarra eta Kate & Pasi finlandiarrak arituko dira.

Zorrotz Morrotz

Programazioa ostegunean, hilaren 5ean hasiko da, arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Zorrotzako udal liburutegian Itziar Sáenz de Ojerrek eskainiko duen ipuin-kontalari emandaldi bereziarekin. "Clowntu kontari" clowntentzako ipuin narrazioa da (euskaraz), eta bertan istorioak, umorea eta ikus-entzuleen partaidetza uztartzen dira. Jarduera doakoa da, baina ezinbestekoa izango da aurretik izena ematea, liburutegian bertan. Inaugurazio jardunaldiari amaiera emateko, Zinebiklub saioa egongo da Zorrotzako Udaltzarian, arratsaldeko 19:30etik aurrera, Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialditik - ZINEBtik igaro diren umorezko film laburren erakusketarekin. Maiatza osoan, ostegunero izango du saioa Zine Zorrotza programak.

Barikuan (maiatzak 6), programak saio bi-koitza jasoko du arratsaldeko 18:30ean eta



19:30ean, Azoka Parkean. Lehenengo Trapu Zaharra taldea etorriko da, Maribel Salas eta Santi Ugalde antzezle ezagunek antzeztuko duten "La Conga" lanarekin. Ondoren, Dado clown kanadarraren, gaur egungo vodevileko antzezle hoberenetakotzat hartzen denaren txanda izango da. "Oddball, mi tío el jorobado" magia eta ezustez betetako ikuskizuna da. Musika asmakizun harrigarriak, osagai bitxi asko, mimika eta keinu barregarriak...

Clown Zorrotzaren aurtengo edizioa larunbatean amaituko da, arratsaldeko 18:30ean hasiko den Ékoma Teatroren eta Kate&Pasi- ren ikuskizunarekin. Euskal konpainiak "Wifi free" aurkeztuko du, umorearen bitartez teknologia berrien erabilera desegokia aurkezten duen komedia. Kate&Pasi finlandiarrak, euren aldetik, "Suhde" lana ekarriko dute Bilbora. Gizon baten eta emakume baten arteko harremana da ikuskizun horren gai nagusia.

MADNESS KAFETEGIA
Elena eta Javier
Zalduen estaza, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

MADNES

Tel. 94 441 62 75

independentzia!
SOZIALISMOA!

ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

ITZULERA GOGOAN.
TAUPADEN ARRAZOIA

Frai Juan 20 • Tel: 688 855 648
askabidezorrotza@gmail.com

Euskal Kultur Astea institutuan



Institutua

Zorrotzako institutuan Euskal Kultur Astea ospatu genuen martxoaren 14tik 18ra. Aste hori urtero antolatu ohi dugu. Aurten gure ikasleek Arkaitz Estiballes eta Beñat Ugarteixe bertsolariek parte harturiko bertso saioaz gozatzeko aukera izan zuten. Joxe Mari Iturralde idazlearen bisitaldia ere izan genuen, ikasle gaztetxoek irakurri zuten “Risky eta bere lagunak” liburuaren egilea.

Bestalde, Barry Barrez izeneko bakarrizketa-saioa izan zuten besteak beste. Helburua beti ere geure ikastetxean euskara sustatzea, eta ikasleei euskaraz era ludiko batean ikasteko aukera ematea.

Elkarretaratzea sexuen arteko desberdintasuna salatzen



Zorrotz Morrotz

Zorroztuz, bazterkeriaren kontrako eta justizia sozialaren aldeko plataformak deituta, eta martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, elkarretaratze bat burutu zen arratsaldean Astillero eta Frai Juan kaleen arteko espaloian, “Desberdintasunaz nekatuta gaude” lemapean. Ondoren, EISE-ren lokalean elkarriketarako gunea burutu zuten bildutakoek, kafe artean, berdintasunaren gaian sakontzeko asmoz.

Hainbat atarritako plaka frankistak kendu ditu Gazte Komunistak erakundeak

Zorrotz Morrotz

Oroimen Historikoaren Legea “betetzen ez dela eta”, Gazte Komunistak erakundeak plaka frankistak kentzeari ekin dio Zorrotzan, haien webgunean adierazi dutenez. Eskailera eta destornilladore bana hartuta Gazte Komunistak erakundeak hainbat lagun Zorrotzan eta Bilboko beste hainbat auzotan ibili dira oraindik orain hainbat lekutan zeuden frankismo garai-ko Instituto Nacional de la Vivienda ikurrak kentzen. Ikur horietan Falangeko uztarrria eta geziak ageri dira.

“Altamendu militarra eta diktadura frankista goratzen duten ikur, ezkutu, kale izen edota plakak” egun oraindik errealitate dira Bilbon. “Aberrazioa” gazte komunisten arabera: legea betetzen ez denez, gazteriak “ofentsibara” jotzea erabaki duela iragarri du erakundeak.

Kaia


Bere garaian joan-etorri handiko kokalekua; antzinean Astilleros reales kokatzen ziren, gero Zorrotzako tailerrak, Campsa eta beste enpresak eta mehatzetatik zetorren minerala hantxe sartzan zan itsasontzietan, Txinborako xaboie egiteko kokoak deskargatzen ziren, zein ikatza burdin labentzako, egurrek, makina-erraminta, eta abar eta abar. Gudan “bouak” (arrantza ontzietan kanoi bat ipintzen zebien proan) Zorrotzako tailerretan montatzen ziren, hantxen egon ziren atrakautak barkuek espetze beharrek egiten eta guda ostean auzokide asko ta asko joaten ziren ikatza hartzen sukaldarako (batzuk ibaian sakonera murgiltzen, erortzen zana batzen) edo kokoak jateko. Bertoko bulegoetan Gabriel Aresti egon zan beharlean eta handik bere “Zorrotzako portuen aldarrika” lana.



Itsasontzia Zorrotzako portuan



Emakumeak portuan deskargatzen



Itsasontzia porturatua Zorrotzan



Baldeak portuko deskargadero eramaten



“Zorrotza gustuko dut auzo-bizitza egiten delako”



SIBIL CISCAR

Jatorria: Rubí (Bartzelona)

Noiztik: 2013tik

Adina: 30 urte

Lanbidea: Saltzailea

Sibil Bartzelona hiritik oso gertu dagoen Rubí izeneko herritik etorri zen gurera 2013. urtean. Bikotekidea auzokidea izanda ez zaio askorik kostatu bertako bizimodura egokitzea. Gustuko du auzoko bizimodu estiloa eta afizioen artean emakumeen munduan jatorria duen “roller derby” kirola praktikatzeko du Botxo Killers izeneko taldean.

Ibai Barrios

Noiz eta zerk ekarri zintuen Zorrotzara?

2013. urteko irailean heldu nintzen. Arrazoiaren artean aipatu behar da nire bikotekidea hemengo delako eta horregatik etorri ginen hona bizitzera.

Auzoa ezagutzen zenuen?

Bai, birritan egon nintzen bizitzera etorri baino lehen. Nire familiari asko gustatu zitzaion auzoa. Aipatu behar dut senitarteko batek Zorrotzara bizitzera etortzeko asmoa duela.

Ze alde ikusten dituzu zure jatorriko herriarekin alderatuz gero? Kostatu zaizu bertako bizimodura egokitzea?

Arreta gehien ematen didana jendea arratsaldero poteoan ateratzea da. Kalera ateratzen adin guztietako jendea ikus dezakezu. Hemen

taberna asko daude eta giro oso ona dagoela uste dut. Bertako bizimodura egokitzea ez zait askorik kostatu.

Eta zelan ikusten duzu oro har bizimodua?

Gustuko dut hemen egotea auzo-bizitza egiten delako. Era guztietako dendak, merkatua... eskura daukazu eta bizimodu hau atsegin dut.

Nola ikusten duzu egoera lana bilatzeko orduan?

Bartzelonarekin alderatuz, hemen merkatari-tzan edo ostalaritzan aritzeko aukera gehiago daudela uste dut.

Dena den, Zorrotzara etorri baino lehen Bilboko beste leku batean izan zinen...

Hona etorri baino lehen Bilboko Alde Zaharrean egon ginen. Nahiz eta bertan giro ona egon nahiago dut auzo-bizitzak ematen didan

lasaitasuna, batez ere bikotekidearekin batera bizitzeko orduan.

Hemengo jendea nolakoa den kontaguzu...

Hasieran hotzak direla ematen du baina kontfidantza hartzen duzun heinean jende irekia dela ikusten da.

Nolakoa da zure eguneroko bizitza?

Goizeetan txakurrarekin ateratzen naiz ibiltzera eta asteazkenetan adibidez ferialean egiten den merkatura hurbiltzen naiz. Saiatzen naiz behar dudana auzoan bertan erosten.

Eta aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Emakume giroan sortutako kirol bat praktikatzen dut, "roller derby" izenekoa. Taldearen izena Botxo Killers da eta kontaktu kirola da. Nahiz eta duela urte batzuk sortu aurten hemengo polikiroldegian hasi gara entrenatzen eta jokatzen. Etxetik minutu gutxira, beraz primeran.

Hemen zer falta dela uste duzu? Egiten diren ekintzetan parte hartzen saiatzen zara?

Merkatuan saltoki gehiago egotea eta garraioari dagokionez metroa. Dena den, auzotik Bilboko erdigunera 10 minututan heltzea primerakoa da. Auzoko ekintzei dagokienez ez dut parte hartzen baina hemendik aurrera tartean sartzea gustatuko litzaidake.

Euskarari buruz...

Hitz eta esamolde batzuk badakizkit baina hizkuntza ikastea gustatuko litzaidake. Katalanarekin alderatuz, han dohakoak diren ikastaroak aurkitzen dituzu. Hemen, aldiz, esfortzu



handia suposatzen du denborari eta batez ere diruari dagokionez. Euskara ikasteko erraztasun gehiago egon beharko lirateke hizkuntza oso polita delako.

Nola ikusten duzu etorkizuna zure jaioterrian?

Batez ere ikusten dut, komunikabideek egin duten irakurketagatik, independentistak ez ziren askok iritzia aldatu dutela. Erabakitze-ko eskubidea izatea funtsezkoa da eta herria konturatu da hori dela garrantzitsuena.

Bukatzeo, faltan gehien botatzen duzuna...

Familiaz aparte, nire herriko janari tipikoak: arroza, fideua... Oro har, kataluniar eta mediterraniar gastronomia. Hemen haragia duzue gustukoen eta niri ez zait gustatzen kar kar. Igandeetan familiarekin moto-txapelketa eta paella jatea faltan dut gehien.

Dantzari
Camino Zorroregaiti 1,
94 612 93 85

 drinks
 txoko
 music
 mara

BETAURREKO GRADUATUAK



49 €

ibarretaluxury
OPTICA

BLACKGUARD64

ZURIGORRI ZORROTZA, ATHLETIC ZALETUEN TALDEA



Hogei urte Athletic sentitzen eta bizitzen

Urteetan zehar, hasieratik bazkide guztiak zuten ilusioari eutsi diote: Athletic sentitu eta bizi. Aurten Zorrotzako taldeak, bere 20. urteurrena ospatu du auzotarrekin. Guztiakin ospatu dute lunch batekin eta apainketa ezberdinekin Venecia tabernan, beraien egoitza sozialean



Testua: Naroa Peña

Argazkiak: ZuriGorri eta Naroa Peña

1995eko maiatzaren 25ean, Athletic Zuri Gorri taldea sortu zen Zorrotzan, nahiz eta uztailera arte ez zen zuzendaritza batzordea sortu. Egoitza soziala Venecia tabernan dago, Estrada de Abaro estartako 10. zenbakian. 1996ko apirilaren 17an 200 bazkide zeukan taldeak, eta taldearen inaugurazio jaia ospatu zen. Bertan, Iribar, Dani, Sarabia eta Athletic-eko hainbat jokalarik ohi egon ziren.

Handik aurrera, talde zuri gorriaren zaletuen lehenengo taldea zuen Zorrotzak, Athletic zale guztientzat elkargune berria. Urteetan zehar, hasieratik bazkide guztiak zuten ilusioari eutsi diote: Athletic sentitu eta bizi!

Gaur egun taldeak 110 kide ditu. Jose Luis Garcia taldearen lehendakaria da, Alfonso de Diego, berriz, lehendakariordea. Baina zuzendaritza batzordearen barruan beste postu batzuk daude, haien artean: idazka-

ria, Jose Antonio Fernandez de Celis, di-ruzaina, Javier Venes, eta hiru batzordeki-deak, Iñaki Peña, Patxi Esnarrizaga eta Jose Luis Dominguez.

Zuzendaritza batzordea gutxienez hilabetean behin biltzen da, urtean zehar egiten dituzten proiektuak erabakitzeko eta antolatzeko. Urtean zehar, auzoko jaietan eta inauterietan laguntza ematen dute, eta baita Korrikan ere. Horrez gain, Athletic Club taldea maite duten guztientzat bidaia ezberdinak antolatzen dituzte. Partidak kanpoan direnean, irteerak antolatzen dituzte futbol taldeari babesa emateko. Jarduera guztiak webgunean eguneratuta izaten dituzte, lagun guztiek irakur ditzaten.

Aurten Zuri Gorri ospakizun betean dago, izan ere, pasa den apirilean, egoitza soziala inauguratu zutenetik, 20 urte bete dira. Egun horretarako, taldeak festa handi bat prestatu zuen, pankarta erraldoia eta hainbat apainketa ezberdinekin egoitzan. Auzoko pertsona guztiekin ospatu nahi izan zuten, eta horretarako, asteburu horretan lunch bat egin zuten. Oso egun hunkigarria izan zen kide guztientzat.

Proiektuak aurrera jarraitzen du, urteetan zehar egin dituzten ahaleginei esker. Hurrengo urteei begira, 20 urte gehiago betetzea espero du elkarteak, edo 30, edo behar beste! Hemendik aurrera taldeko oinordekoek orain arte gorde den izpiritua eta gogo berberarekin aurrera egitea nahi dute elkarteki-deek. Urte askotarako Zuri Gorri!



Gaur egungo Zuzendaritza Batzordeko kide batzuk



Taldearen inaugurazio jai, 1996. urtean



BAR VENECIA

Espezialitateak:

Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak

Abaro estarta 10

AUPA ATHLETIC



CAFÉ LAS NAVAS

Pintxo goxoak egunero

Zorrotza Kastrexana errepeidea 4

Bar La BOMBA

Zorrotza Kastrexana errepeidea 33

HIJOS DE TU IGLESIA

La Polla punk musika taldeari tributo taldea

“La Pollaren abestiak jotzen hasi ginen gure gozamenerako, baina hasi eta berehala, kontzertuak egiteko eskaerak heldu zizkiguten”

Jabi, Asier eta Kristian zorrotzarrek eta Gorka irauregiarrek ez zuten talde tributorik sortzeko asmorik hasieran, baina La Polla taldearen tributo talderik ezagunena bihurtu dira. “Esto no es Rock radical Vasco” biraren barnean, Hegoaldeko hiriburuetan jo dute Eskorbuto eta Kortaturen beste bi talde tributorekin batera. Apirilaren 9an, bira horren barruan Bilboko Santana aretoan emandako kontzertuaren ostean, beraiekin egon ginen



Testua eta argazkiak: Aitor Marín



Noiz eta nola sortu zen taldea?

Jabi: 2009an uste dut. Asier eta biok loka-lean geundenean Gorka etorri zitzaigun ea La Pollaren kanta batzuk jotzera animatzen ginen. Ez zen hausnartutako ezer izan. Hainbat abesti prestatu genituen. Gure gozame-narako geratzen ginen abesti horiek jotzeko. Gu bezala, La Polla gustukoa zuten lagun batzuk hasi ziren egiten genuen “kedada” haietara etortzen, eta lagun horietako batek Alonsotegiko taberna batean kontzertu bat egitea proposatu zigun. Alonsotegi eta Zorrotxa aldean “ezagunak” egiten hasi genen. Ahoz-ahoz, pixkanaka-pixkanaka, kontzertu gehiago etorri ziren... Eta honaino.

La Polla taldearen abestiak jotzen dituen taldea da Hijos de tu Iglesia. Zergatik La Polla eta ez beste bat?

Asier: 13 edo 14 urtetatik, guztion talde kutunena izan delakoa nago.

Gorka: Hasieran, talde gehiagoren kanta jotzen genituen. Baina hori berbena bat zen. Punkia, noski, baina berbena azken finean. Kontzertuak egiten hasi ginenean, La Pollaren tributo bat egiteko ideia sortu zen.

Zergatik Hijos de tu Iglesia izena?

J: La Pollaren erreperitorioan hasi ginen hitz jokoren bat, zer edo zer bilatzen... Haien zuzeneko disko batean elizan abesten den

kanta bat moldatzen dute: “Repartiéndose el mundo, en torno a tu mesa, Señor, así son los hijos de tu Iglesia”... Hori gustukoa izan genuen eta taldea izendatu genuen.

Hijos de tu Iglesiaz gain beste hainbat taldeetan murgilduta zaudete, ezta? Zuek laurok, elkarrekin, zuek sortutako abestiak jotzea pentsatu duzue inoiz?

J: Bai, eta egin dugu. Kontzertuetan abestiak lotzeko bi rantxera asmatu ditugu! kar, kar! La Pollaren erreperitorioa oso zabala da eta ez dugu denborarik gurea den ezer jotzeko.

La Polla oso talde mitikoa da eta diozuen bezala, erreperitorioa oso zabala da. Nork eta zelan erabakitzen du zein kanta jo eta zeintzuk alboratu?

A: Guztion artean erabakitzen da.

Kristian: Noizbehinka erreperitorioaren zenbait abesti aldatzeko proposamenak botatzen ditugu, eta guztion artean erabakitzen da.

Ahalik eta modu fidelean jotzen saiatzen zarete, ala zuen ikutua ematen diezue abestiei?

A: Erritmoak berdinak dira, baina gure modura moldatzea gustukoa dugu.

G: Batzuetan errazten dugu abestia, bestetan, agian zaildu apur bat, baina La Pollaren esentzia galdu gabe.



La Polla taldearen baimena duzue haien kantak jotzeko? Talde batzuek iskanbilak izan dituzte atera zaizkien tributoekin. Taldekideren bat ezagutzen duzue?

G: Ez dugu baimenik behar!! Ni haien kontzerturen batean, bukatu ostean, Evaristorekin berbetan egona naiz aspaldian, baita oso jatorra izan eta zen zendu zen Fernanditorekin... Haien telefono zenbakirik ez dugu, baina etxeokoa balira bezala! kar kar!

J: Guk ez dugu dirurik bilatzen honetan. Egia da inoiz proiektu handiren bat eskaintzen badigute, haiek hitz egin beharko genukeela eta behar dena ordaindu, baina amateurrek gara eta gustuagatik jotzen dugu haien abestiak.

**Soilik haien musika jotzen duzue, ala janke-
ra eta ikuskizuna imitatzen saiatzen zarete?**

K: Musika. Azken finean, hori da funtsezkoa kontzertu batean. La Pollaren musika erreproduzitzea posiblea da, baina kopiatzea ez. Evaristoren ikuskizuna ezin da kopiatu. Ez litzateke egiazkoa izango.

**La Pollaren talde tributo gehiago badaude.
Zertan ezberdintzen zarete haietat?**

J: Laukote bakarra garela, adibidez. Nik abesten dut, baina kitarra edo baxua ere jotzen dut. Ez dut Evaristo imitatu nahi, baina kitarra edo baxua eskuartean, gainera ezinezkoa egiten zait.

K: Beste guztiak boskoteak dira eta saiatzen dira Evaristo imitatzen. Gu ez gara imitadoreak. Gure hasierako asmoa La Pollaren kantak gure gozamererako jotzea izan da.

**La Polla eszenatokitara bueltatuko balitz,
kontzertuak ematen jarraituko zinatekete?**

A: Ez. Argi eta garbi. Tributoaren zentzua ez dagoen talde bat gogoratzea da, gure kasuan gainera, jendeak hala eskatzen duelako.

**Zeintzuk dira talde tributoa izatearen alde-
rik onena eta txarrena?**

K: Ikaragarria da jendeak abesti guztiak buruz jakitea eta gurekin lehenengo abestitik abesten eta disfrutatzen ikustea. Hori zoritxarrez, beste taldeekin ez zaigu gertatzen.

A: Alderik txarrena, taldearen etorkizun motza eta kritikatuagoak garela. Batzuek La Polla ikustera doazela pentsatzen dute, eta ez da holan. Hala ere, gehienak pozik ateratzen direla uste dut.

**Nolakoa da Euskal herriko eszena musika-
la?**

J: Hilda dago. Lehen talde pila bat ateratzen zen. Orain kalitate edo produkzio handia duten taldeak baino ez dira ateratzen. Gaur egungo industria musikala oso ezberdina da orain dela hogeit urtekoarekin alboratuta. Krisi ekonomikoak ere horretan zeregina izan

duela uste dut. Herri eta auzoetan ez dago dirurik taldeak era duin batean ekartzeko... Pop latino eta horrelakoak baino ez dira entzuten irratietan. Ez da ateratzen ezer berririk... Horregatik agian tributoen arrakasta. Oso nostalgikoak gara herri honetan. Lehen aipatu dugun bezala, gu La Pollaren kantak hasi ginen jotzen ondo pasatzeko. Hasi eta berehala, guk planteatu gabe, berehala kontzertuak ematea eskatu zigun jendeak.

Nolakoa da zuen publikoa? La Pollaren garaia bizi zutenez aparte, gazteagoak ere hurbiltzen dira zuen kontzertuetara?

K: Garai haietakoak dira gehien bat, baina denetarik aurki daiteke.

Diska edo zuzenekoren bat grabatzea pentsatu duzue? Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

J: Ahalik eta kontzertu gehien ematea. Jendearen erantzunak orain arte bezain ona izaten jarraitzen badu, guk oholza gainean jarraituko dugu, oso ondo pasatzen baitugu, baina Hijos de tu iglesia taldeak diska bat grabatzeak ez dauka inolako zentzurik.

“Esto no es Rock Radikal Vasco” bukatu berri duzuen biraren barnean, Donostian, Gasteizen, Iruñan, Bermeon eta Bilbon jotzeko aukera izan duzue. Zelan bizi izan duzue?

J: Azaroan hasiko zela proiektutxo bat komentatu ziguten. Guk hasieran tabernetan edo leku askoz xumeagoetan izango zela pentsatzen genuen... Oso pozik gaude izandako esperientziarekin.

LABURREAN

La Pollaren abesti eta albumen bat?

G: Canción de cuna eta La polla en directo.

A: Monopoli eta Bajo presión.

K: La solución final eta En tu recto.

J: La tortura eta Salve

La Pollaz aparte, musika talde bat?

G: Animales muertos.

A: El ultimo ke zierre.

K: Su ta Gar.

J: Aerosmith.

Orain arte emandako kontzerturik kuttunena?

Denak: 2013ko Aste Nagusian Kulturguneko eszenatokian emandakoa, Fink eta KOP taldeekin batera.

Zein oholztatan edo festibaletan gustatuko litzaizueke jotzea?

G: Edozein oholta gainean gustura sentitzen naiz.

A: Madril edo Bartzelonako areto handiren batean.

K: Aste Nagusian berriro.

J: Kafe Antzokian.

Musikaz aparte beste zaletasunen bat?

G: Arrantza.

A: Musika ekoizpena.

K: Athletic.

J: Zinema.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-haztegi propioa
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

Vía gráfica
viagraficazorrotza@gmail.com
Disenya

Hegaluze pikante pintxo



Osagaiak: Tomate frijitua, maionesa, errioxar "alegria", olibak edo tipulinak, hegaluze papurtua eta ogia

Hegaluze papurtua kaiku baten barruan botatzen da. Maionesa eta tomate apur bat gehituko diogu. Ondo nahastu kolorea hartu arte, eta gero tabaskoa nahieran bota. Nahasketa eginda, ogi xerra batzuk ebaki eta plater gainean kokatu. Azkenik, hegaluze nahasketa hartzen dugu eta ogi xerren gainean kokatu behar da. Bukatzeko, eta apaintzeko, zotz batekin baliatuz, errioxar alegria tira mehe eta oliba edo tipulin bana hartu, kontuz pintxoan kokatu eta listo! Ona eta erraza. On egin!

| | |
|-----------------------|--------|
| Zaitasun maila | Erraza |
|-----------------------|--------|

Prezioa: 1,35 euro

BASARRI TABERNA



Taberna familiarra, zazpi urte daramatzate Miguel Ángelek eta Arik barraren atzean, gosariak eta kafe- krema prestatzen beste espezialitateen artean. Askotariko pintxo eta gildak ditugu, gure iberiar solomoa eta urdaiazpikoa azpimarratzekoak dira. Larunbat, igande eta jaiegunetan amatxoaren etxeko txibierroak.

Ostegunetan, ez afaririk prestatu eta gure Pintxopotera etorri gaueko 19etatik 22etara. Azken hilabeteko ostegunetan, zozketa berezia izaten dugu gainera.

Kafe, ardo eta garagardo goxoez gain, koktel eta kopa bereziak prestatzen ditugu, hala nola gure martini prestatuak, gintonic, edota cubalibreak. Futbol eta basket partida guztiak ikusgai, baita 1 Formula eta motoziklismoa ere. Asteartetik igandera, goizeko 6etatik gaueko 00etara. Zuen zain gaude. Aupa Athletic!

Zorrotza Kastrexana errepidea, 10



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12


cafe txinbo

Espezialitateak:
Tapak eta errazioak
Kanapeak




Abaro estarta, 10
Tel. 94 608 85 74

Pizzeria Jatetxea



La Viña de Oro
Zorrozoiti 1 · 944 994 247

OMEGA OPARIAK



1999an ireki zuen Mari Pazek bera denda arte asko irauteko itxaropenarekin. Bertan denetik topa dezakezu: opariak, osagarriak (euritakoak, zorroak...), apaingarriak, zilarra, bisuteria, jostailuak... eta askoz gehiago.

Aipatzekoa da bere bezeroekiko hurbiltasun itzela. Pertsona bakoitzari egokitutako produktu berriak ezagutzeko aukera ematen du. Izan ere, bere kezka nagusia bezeroa aholkatzea eta produktu originalak eta artisauak lortzea da. Gainera, eguneratze-ko asmoz webgune eta email berria sortu ditu. Egiozu begiratxoa, merezi du eta!

Igarotako urte hauetan beregan konfiantza izan duen auzokide orori eskerrak eman nahi dizkio, leialtasuna, pazientziagatik eta kasu askotan, izandako adiskidetasunagatik.

Omega Opariak
Fray Juan, 19 (Omega galeria).
Tifnoa. 94 482 03 66
www.omegadetalles.com
info@omegadetalles.com



Atertu arte itxaron

Katixa Agirre. Elkar. 2015



Liburuan bi hari nagusi aurki ditza-kegu: Bata, orainaldikoa, Ulia eta Gustavo bikote protagonistaren harremanaren bitartez. Bestea, iragan ez urrunekoa, ikusi nahi ez duguna baina oraindik gugan eragin handia daukana. Aipatutako hariak josteko gertaera eta pertsonaiez baliatzen da. Esate baterako, Gasteizko mar- txoaren 3ko eta Madrilgo maiatzaren 11ko gertaerak, euskal gatazka, ...


Azkenean maisuki lotzen (edo askatzen) diren hari asko daukagu eraz irakurtzen den baina asko pentsarazten duen eleberri honetan.

Gaur egungo zein atzotik argitu gabeko arazoak bere/gure gain harteko gaitasunik gabe, ba- tez ere bere/gure utzikeria eta epeltasunagatik. Hori dela eta, oso sarkasmo fin baten bitartez, idazleak pertsonaiak eta egoerak erabiltzen ditu, ideiak birmarkatzeko ia adjektiborik erabili gabe, esaldi esanguratsu eta adierazgarrien bidez, hala nola barne edo kanpo elkarriketetan airean mar- rraztuko lirartekeen hitzak orrialdean kokatuz, ira- kurleak ernatuko lituzkeen zaplaztekoak emateko.



Bigarren saria

Peiremans (Only in Dreams. 2015)



2005. urtean Gorka Urbizuk (Berri Txarrak) eta Imanol Ubedak (Bide Ertzean) Peiremans izeneko proiektua jarri zuten abian. Bost kantuz osatutako diska laburra eman zuten argitara Txiki (Kashbad) eta Marino Goñi (Balerdi Balerdi) bi- delagun zituztelarik. Zeresana

eman zuen Euskal Herriko musika eszenan baina musikariek zituzten beste konpromisoengatik taldea standby egoeran geratu zen. laz eta taldearen 10. urteurrena ospatzeko, berriro batu ziren kontzer- tu gutxi batzuk egiteko. Eta abesti berrien sorkun- tzan murgiltzeko ere bai. Emaizta moduan 5 kantuz osatutako "Bigarren Saria" diska laburra daukagu. Aurreko diskoko formula bera errepikatu dute: To- losako Bonberenea estudioan grabatu dute Karlos Osinaga "Txap" ekoiizlearen laguntzarekin. "Bemidji" singlean pop eta rocka nahasteko maisutasuna edo "Radiomaria" duen melodia itsaskorra aipatu behar dira. Martxoan diska aurkezteko hiru kontzertu egin zituzten baina berriro standby egoeran geratu dira. Beste hamar urteko etenaldia akaso?



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidalguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!

EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



Asimetria. Gizon edo emakumeei buruz hitz egiterakoan ematen den desberdintasuna edo hemen asimetria deituko dioguna, maskulinoak eta femeninoak sozialki tradizio patriarkalean errepresentatu dituzten baloreei jarraiturik egoera berdinean mezu desberdinak igortzean datza. Izan ere, gehienetan ohartu gabe egiten dugun gauza da. Asimetriaz hitz egitearena ez da euskararen ezaugarri eskusiboa, hizlarion pentsamendu sexistan jaio eta hizkuntzaren bidez erreproduzitzen delako edozein hizkuntzatan.

Adibidez, oso kasu argia topatu dezakegu historia egin duten emakumeen biografiak irakurtzean, eta bere fisikoari buruz edo familiar zeukan errolari buruzko informazioa maiz agertzen direnean. Ez da batere ohikoa gizonezkoetan aurkitzea.

Ederki nabaritu daiteke umeei hitz egiten diegunean ere:

(Neskari) Etorri hona, eder hori! Eman muxu bat, maitea! A ze nolako zapata politik! Loretxo bat dirudizu.

(Mutikoari) Etorri hona, mutil! Eman bostekoa! Zapata onak ekarri dituzu ostiko ederrak emateko! Txapeldun hutsa zara.

SALAKETA ARGAZKIA



Jaitsi, ahal baduzu...

Espaloi bat, geltoki bat eta autobus bat, non dago koska?

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tlfno. 94 441 61 46

Zorrotzak badu metroa

Bi hamarkada aiene eta kexu daramagu Zorrotzak metro geltokirik ez duela eta... Baliteke linea berriak eraikitzea baina argi dago Zorrotza ez dela inolako proiektutan sartzen. Zer egin behar dugu beraz? Elkarrekin mobilizatu behar dugu? Metroa hona heltzea eskatu behar dugu? Nire iritziz, ez.

Bere garaian, 90.eko hamarkadan, aukera handia galdu zuen metroa Zorrotzan gelditzeko, Gurutzetarako bidean itsasadarra San Inazio azpitik zeharkatu ordez, San Mamesetik gurera egin izan balu.

20 urte luze igaro dira Metro Bilbao inauguratu zenetik, eta gaur Zorrotzan egunen batean metro geltokirik ikusiko duela uste duena bere burua engainatzen ari da. Baliteke linea berriak eraikitzea Galdakaorantz, Errekalderantz edo aireporturaino, baina argi dago Zorrotza ez dela inolako proiektutan sartzen. Zer egin behar dugu beraz auzoan? Elkarrekin mobilizatu behar dugu? Metroa hona heltzea eskatu behar dugu? Nire iritziz, ez. Zorrotzan nahikoa arazo, gabezia eta behar historiko ditugu eta uste dut horra bideratu beharko ditugula gure indar guztiak, proiektu utopikoak alboratuta. Hori bai, nahiz eta metroa Zorrotzara ez dela inoiz iritsiko onartu, horrek ez du esan nahi auzoak ez duenik

hutsunerik mugikortasunean eta, gaudituko baditugu, lehenbailehen aktibatu behar dugu Zorrotza. Pausoak egiteko garaia da.

Badago eta bide zuzen eta errazagoa hemengo mugikortasun arazoak konpontzeko, TXARTEL BAKARRA, alegia. Sarritan entzun dugu txartel bakarraren kontu hori, baina ez dakigu ondo zer den. Saiatuko naiz azaltzen. Hauek lirajteke, nire ustez, Bizkairako txartel bakarraren ezaugarriak:

- Erabilgarria garraibide guztietan (Bilbo-bus, Bizkaibus, Metro, Renfe eta Feve).
- Tarifa sistema bateratua garraio aldaketak zigortu gabe.
- Zorrotzatik Bizkaiko edozein lekutarako bidaiak prezio bat izatea, berdin delarik zenbat garraio aldaketa egiten den.

Eta puntu honetan norbaitek pentsatuko du... Barik txartela da hori! Oker, oso oker dabil. Barik-ekin garraibideak lotuz gero % 20 merkeago ateratzen dira bidaiak. Aldiz, TXARTEL BAKARRAren jatorriak eta helmugak soilik zehaztuko lukete prezioa, eta askoz merkeago aterako litzateke bidaiak. Demagun, adibidez, Renfeko trenan Zorrotzan hartu, San Mamesen trenaz aldatu eta Santutxuraino metroz joatea 80 zentimo inguru ordaintzen dela. Horixe litzateke TXARTEL BAKARRA.

Horregatik guztiatik, baieztatzen dizuet, berriro, Zorrotzak baduela metroa eskura: TXARTEL BAKARRA du izena, eta hori lortzera bideratu behar dugu gure borroka.

Raul Méndez Urigoitia (@murigoitia)



ROCKET TAVERN

Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 - Tel 94 655 68 98



Regalos Omega

oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza

94 482 03 66

www.omegadetales.com



Taberna AITOR

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96



AUTO ESKOLA KAIKU

Liderra Ezkerraldean

Zorrotza Kastrexana, 1
Tifno: 94 427 88 10

II. Potejasotzaile Eguna. Kuadrillen arteko giro ona sendotu eta aldarrikatu dute gazteek

Zorrotza auzo bizi eta alaia dela aldarrikatzeko asmoz, bigarren urtez taberna bakoitzean pote bat hartzeko erronkari eutsi zioten kuadrillek. Poteoa aitzakia izanda, gazteen arteko giroa gero eta hobea dela argi utzi zuten lehiaketa bitxi honetan bildutako gazteak

Zorrotzako Kuadrillak

Apirilaren 17an izan genuen berriz Potejasotzaile Eguna auzoan. Aurreko urtean bezala, Zorrotzako Kuadrillak batu egin ziren auzoa berpizteko. Nola? Bada, Euskal Herrian dugun kirolik gustukoena egiteko asmoz, poteoa hain zuzen ere.

Zorrotzako kuadrillen izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu ekimen honetan parte hartu zuten lagun guztiei eta batez ere Zorrotzako tabernari guztiei, haiek prestatutako eta emandako pintxoei esker, hobeto jasan baikeenuen "txapelketa".

Mila esker Zorrotza eta datorren urtean elkar ikusiko dugu berriro.



30 urte bete eta estreinalditan gaude!

Gure Lurra Elkarteak web orrialde berria martxan jarri du martxoan, gurelurra.org. Entitatea osatzen dugun guztiontzako interakzio bidea izatea du helburu: lan egiten dugun familia eta kolektiboen artean eta orokorrean gu ezagutzen gaituzten edo ezagutu nahi gaituzten pertsona guztien artean.

Estreinaldi hau 30 urte beteko dugun urte honetan dator, irudi berri batekin eta etapa berri baterako non haur eta gazteen parte-hartzea eta gure auzoen garapena sustatzen jarraitu nahi dugun, beti komunitate-ikuspegi batetik. Hala, gero eta konplexuagoa eta anitzagoa den gizartearen erronkei aurre egitea dugu xede, geure auzoetatik bertatik inor alde batera uzten ez duten ekimenak bulztatuz. Krisialdiak eta enplegu faltak ondorioak izan dituzte gure auzokideen artean eta



egoera honek bereziki eragina izan du etxeko txikien artean. Gure ahaleginak, beraz, guztion garapen pertsonalera eta gizarte garapenera zuzendu behar dira, eta batez ere gehien behar dutenen garapenera. Prest gaude aurrera egiteko!

Web orrialde berriarekin batera, Facebook berria

martxan jartzen dugu ere, Twitter-ekin jarraitzen dugu eta posta elektronikoa helbideak aldatu ditugu.

Azkenik, hurrengo ekainaren 4an ospatuko dugun 30. urteurren jaira nahi zaituztegu gonbidatu. Laster egun guztiaren egitaraua emango dugu ezagutzera!

Eskerrik asko gure bidean laguntzen jarraitzeagatik!



gurelurra@gurelurra.org
944971457 :: 615 78 33 50
@gurelurra
facebook.com/gurelurraelkartea

alboka
taberna

Soka kalea, 5
Zorrotza
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

MAPFRE

Estibaliz Ibañez Canal
Delegatua

Astillero, 8
48013 Bilbo

Tel. 94 441 91 87
iestiva@mapfre.com
ampascu@mapfre.com

Restaurante
Arsenio

Tfno. 94 497 10 03
Hermógenes Rojo, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarnez)
Eguneko menua



Oihana

Eskalada oso gustuko dut eta Leioara joan behar dut hemen errokodromorik ez dagoelako, beraz nerekoizanez, errokodromo bat egingo nuke.



Daniel

Umeentzako aisialdirako gune berriak sortu eta Landa eremua eraberritu gazteentzako etxebizitza berriak egiteko.

Zorrotzako alkatea bazina...

Zein izango litzateke zure lehenengo ekintza?

Aitor Marin



Silvia eta Alaia

FEVE trenbidea lurperatu. Txikia nintzenetik entzun izan dut lurperatzeko asmoa zegoela baina hor dirau. Ikastetxeak hor alboan egonda, premiazkoa da hori.



Fernando

Ufa! Hainbeste gauza egin behar da! Auzo-etxe berri bat, egun egiten ez diren ekintza soziokulturalak egin ahal izateko. Sarbide mekaniko berriak egin eta oztopo arkitektnikoak kendu Amistad eta Lorategia kaleetan, adibidez.



Oihane

Atari zabaleko igerilekuak eraikiko nituzke.




Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**

Jai-Alai
kafetegia



Abaro estaria, 12
94 490 12 59



ZINE
ZORROTZA
ZORROTZA

CENTRO MUNICIPAL
ZORROTZA
UDALTEGIA

MAIATZA/MAYO 2016
EGUENETAN 19:30 JUEVES

5 ZINEBIKLUB: UMOREZKO FILM LABURRAK
CORTOMETRAJES DE HUMOR

12 ZINEBIKLUB: 57. NAZIOARTEKO LEHIAKETAKO FILM LABURRAK
CORTOMETRAJES DEL 57º CERTAMEN INTERNACIONAL

19 FANT XXII: NAZIOARTEKO FILM LABUR FANTASTIKOAK
CORTOMETRAJES FANTÁSTICOS INTERNACIONALES

26 FANT XXII: EUSKAL FILM LABUR FANTASTIKOAK
CORTOMETRAJES FANTÁSTICOS VASCOS





CLOWN

ZORROTZA 2016
MAIATZAK 5-7 MAYO

5 18.00 (EGUENA / JUEVES)
ZORROTZAKO LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA DE ZORROTZA
ITZIAR SÁENZ DE OJER (Euskal Herria) / "Clowntu kontari"

19.30 (EGUENA / JUEVES)
ZORROTZAKO UDALTEGIA / CENTRO MUNICIPAL DE ZORROTZA
ZINEBIKLUB

Umorezko film laburren erakusketa
Muestra de cortometrajes de humor

6 18.30 (BARKUA / VIERNES)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
TRAPU ZAHARRA "La conga" (Euskal Herria)

19.30 (EGUENA / JUEVES)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
DADO "Oddball, mi tío el jorobado" (Canadá)

7 18.30 (ZAPATUA / SABADO)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
ÉKOMA TEATRO "Wifi Free" (Euskal Herria)

19.30 (ZAPATUA / SABADO)
AZOKA PARKEA / PARQUE DEL FERIA
KATE & PASI "Suhde" (Finlandia)

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN


Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO



www.kulturabarrutik.eus

 KulturaBarrutik
 BilbaoKultura


ARRIGORRIAGA
UDALA - AYUNTAMIENTO

 **Bibliotekak** **ZINEBI**